



José Ignacio Arrieta


enpresa eta gizarte saria

premio **empresa y sociedad**

José Ignacio Arrieta

VII. Edizioaren Oinarriak

2026





XEDEA ETA GARRANTZIA

Estrategia Empresarialek José Ignacio Arrieta Enpresa eta Gizarte Sariaren seigarren edizioa ospatzen du. Helburua euskal enpresek (enpresa talde zein enpresa munduarekin harremana duten pertsonak) duten Erantzukizun Sozial Korporatiboko (ESK) jokaera nabarmenenak aitortzea eta haien ekarpenak garapen sozio-ekonomikoan, ongizatean, hezkuntzan eta kulturaren ezagutaraztea da.

Horregatik, José Ignacio Arrieta Enpresa eta Gizarte Sariaren bidez, Estrategia Empresarialek helburu hauek lortu nahi ditu:



Aitortzea

ESK esparruaren barne haien konpromiso sozialagatik nabarmentzen diren enpresa, enpresa talde, enpresari eta zuzendariak izandako ardura eta esfortzuagatik.



Nabarmentzea

Enpleguan, ikerkuntzan, mendetasunean eta desgaitasunean, osasunean, gizarteratzean, hezkuntzan, iraunkortasunean, adinekoetan eta kultura sustapeneko arloetan eginiko Erantzukizun Sozial Korporatiboko jokaera nabarmenenak azpimarratzea.



Sensibilizatzea

Egitura sozio-ekonomikoan eta euskal gizartean Erantzukizun Sozialeko jokaeren beharraz sentsibilizatzea, horietan irautea eta eredugarritzat hartzea.



Kontzientziatzea

Enpresei eta pertsonari jarrera sozialen aldaketan eraginaren garrantziaz gizarte eta lurraldeen kohesioa lortzearen helburuarekin.



Identifikatzea

Beste enpresa, enpresa talde, enpresari eta zuzendariak ekintza zein jokaera anitzak eredu bezala hartu ahal izatea.



Saritzea

Ekintza onak aurrera eramaten ari diren enpresa eta enpresa munduarekin erlazioa duten pertsonak.



Ekimen honekin gure laguntza eskaini nahi diogu helburu bikoitza duen proiektu honi:

- Ikerkuntzarako, gogoetarako, dibulgaziorako, kontzientziaziorako, praktiken ezagutzarako eta enpresa zein gizartearen arteko harremanetarako ekimen zein proposamenen palanka bihurtzea.
- Era berean, José Ignacio Arrietak bere bizitza osoan izandako konpromiso intelektuala gogoraraztea.



JOSÉ IGNACIO ARRIETA

Sari hau sortu zen José Ignacio Arrietaren ome-
nez (1943-2018). Estrategia Empresarialeko fun-
datzailea, bere ibilbide pertsonal eta profesional
osoan zehar erantzukizun sozialeko eredu lauda-
garria izan zen hura.

Sari honekin Estrategia Empresarialek aitortu nahi
du bere ibilbide pertsonal zein profesionala eta
baita ere Euskadiri eginiko ekarpena arlo sozial
zein ekonomikoan.

José Ignacio Arrietak bere ibilbide profesionalaren
zehar, arlo publiko zein pribatuan, gogoz defenditu
zuen enpresa, aberastasunaren sortzailearen
rolean, eta gizartea, funtsezko estruktura kohesio
soziala lortzeko loturaren beharra.

Aipatzekoa da Diru Sarrera Bermatzeko Errenta-
ren (DSB) eta Pobreziaren Aurkako Egitasmoaren
aitzindaria izan zela, beraz, bidezkoa da bere iru-
dia gogoratzea Euskadiren identitate zeinaren
alde lan egin zuen pertsona bat bezala: gizarte
moderno eta kohesionatuta eta egitura trinko
duen babes soziala.



HAUTAGAITZAK

Sari hau **Erantzukizun Sozial Korporatiboko** jokabideetan konprometituta dauden enpresa, enpresa talde, enpresari eta zuzendari guztientzat zabalik dago.

Epaimahaiak, zalantzan egotekotan, eskubidea izango du juzgatzera eta aukeratzera baldintzak betetzen dituzten hautagaiak.

AURKEZPEN EPEA

Zazpigarren edizio honetan, dokumentazioa posta elektroniko honetara secretaria@estrategia.net bidali daiteke edo gure bulegoetan aurkezteko aukera ere egongo da:

C/ Done Bikendi kalea, 8- Albia Eraikina I, 6^a solairua.

Hautagaitzen aurkezpena zabalik egongo da **2026ko maiatzaren 15era arte**.

Epez kanpoko eskaerak ez dira onartuko.



AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Hautagai aurkezten den pertsona edo erakundearen identifikazioa
2. Enpresa hautagaiaren identifikazioa
3. Idatziz aurkeztea (gutxienez folio bat, aurpegi batez) garatzen dituen praktika onak, zeinak aplikatu daitezke hurrengo arloetan:
 - Enplegua
 - Ikerketa eta osasuna
 - Mendetasuna eta Desgaitasuna
 - Gizarteratzea
 - Hezkuntza
 - Gazte ekintzailatza
 - Iraunkortasuna
 - Adinekoak
 - Kirol eta Kultura Sustapena

Onartuko da ere marrazki, argazki eta bideoen aurkezpena, betiere edukiek frogatzen badituzte aipatutako jokaerak.



EPAIMAHAIA

Epaimahaia hurrengoek osatzen dute:

Presidente: Estrategia Empresarialeko Administrazio-Kontseiluaren Idazkaria.

Idazkaria: Estrategia Empresarialeko Kontseilari Delegatua.

Bokalak:

- BBK
- Petronor
- Eusko Jaurlaritza
- Confebask
- Artech (Aurreko edizioko enpresa sariduna)
- Bodegas Izadi (Aurreko edizioko enpresa sariduna)

Epaimahaiaren **FUNTZIOAK** hurrengoak:

- Aurkeztutako hautagaien aukeraketa
- Saria ematea

Baldintzak

- Balorazio irizpideak oinarrituko dira epaimahaien iritzietan.
- Aukeraketa gehiengo soilaren bidez izango da, Presidente kalitatezko botoa izanik
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
- Sariak bi maila ditu, enpresa handikoa eta enpresa txiki eta ertainena, alegia. Bakarrik hautagai bat onartuko da maila bakoitzean.
- José Ignacio Arrieta Enpresa eta Gizarte Saria urtero ospatuko da, aurtengoa hirugarren edizioa izanik eta publizitate, konkurrentzia eta objektibotasun printzipioen arabera gauzatzen da.
- Aurten bi sari egongo dira diru-hornidurarik gabe. Errekonozimendu sozial bat da.
- Sariak emango dira epaimahaiko kideak erabakitzen dutenean hautagaiak baldintzak betetzeaz gain merezi dutenean. Kontrako kasuan, ez da saririk emango.
- Organizazioak saridunen zenbatekoa zabaltzeko edota aldatzeko eskubidea izango du kasuan kasu, merezimendu bereziko hautagaiak ematen badira.
- Sariak eman ahal izango dira 'ex-aequo'.



José Ignacio Arrieta
enpresa eta gizarte saria
premio **empresa y sociedad**
José Ignacio Arrieta

VII. Edizioaren Oinarriak - 2026

SARI BANAKETA

Sari banaketa Estrategia Empresarialek antolatutako ekitaldian Bilboko **BBK Aretoan 2026ko maiatzaren 25ean** izango da. zazpigarren edizio hau BBKren eta Petronoren kolaborazioarekin eginda da.



ESTRATEGIA EMPRESARIAL

BILBAO

Albia I eraikina, / 6. solairua

Done Bikendi 8, 7. dpt. / 48001 Bilbao

944 274 446

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

ACB Eraikina/ 20018 Donostia

943 011 160

www.estrategia.net